



Acto de investidura  
de la Profesora  
Dña. Adela Cortina Orts como  
Doctora “Honoris Causa”

Adela Cortina Orts  
irakasle andrea  
“Honoris Causa” Doktore  
izendatzeko ekitaldia

**Universidad de Deusto**  
**Deustuko Unibertsitatea**



Acto de investidura  
de la Profesora  
Dña. Adela Cortina Orts como  
Doctora “Honoris Causa”

Adela Cortina Orts  
irakasle andrea  
“Honoris Causa” Doktore  
izendatzeko ekitaldia

**Universidad de Deusto**  
**Deustuko Unibertsitatea**



Discursos de la solemne investidura de la  
Profesora Doña Adela Cortina Orts como  
Doctora “Honoris Causa” por la  
Universidad de Deusto

Adela Cortina Orts irakasle andrea  
Deustuko Unibertsitateko  
“Honoris Causa” Doktore  
izendatzeko ekitaldi ospetsuko hitzaldiak

20 de octubre de 2016  
2016ko urriaren 20a



## Sumario

“Laudatio” a cargo del Dr. D. Fernando Gómez-Bezales Pascual, Catedrático de Finanzas de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la Universidad de Deusto.

“Lectio magistralis” de la Dra. Dña. Adela Cortina Orts: *Economía ética para un tiempo nuevo*.

## Aurkibidea

“Laudatio”a, Fernando Gómez-Bezales Pascual doktoreak, Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Finantzako katedradunak, egina. 11

“Lectio magistralis”a, Adela Cortina Orts doktoreak emana: *Economia etikoa garai berri baterako*. 23





“Laudatio” a cargo del Dr. D. Fernando  
Gómez-Bezares Pascual, Catedrático de  
Finanzas de la Facultad de Ciencias  
Económicas y Empresariales de la  
Universidad de Deusto

“Laudatio”a, Fernando Gómez-Bezares  
Pascual doktoreak, Deustuko  
Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa  
Zientzien Fakultateko Finantzetako  
katedradunak, egina



## ***Laudatio* de la doctora Adela Cortina**

por el doctor Fernando Gómez-Bezares  
Catedrático de Finanzas de Deusto Business School

Excelentísimo y Magnífico Sr. Rector de la Universidad de Deusto

Excelentísimas e Ilustrísimas Autoridades

Miembros de la Comunidad Universitaria

Señoras y Señores

Es para mí un gran honor pronunciar la *Laudatio* de la profesora Adela Cortina, en este año de 2016 en el que celebramos el centenario de la Deusto Business School. Hace cien años, en 1916, comenzó el primer curso de la que era la primera escuela de negocios española, y una de las primeras del mundo, la Universidad Comercial de Deusto, hoy Deusto Business School, impulsada por la Fundación Vizcaína Aguirre y la Compañía de Jesús. Para celebrar este centenario se han programado diferentes actos, entre los que se sitúa en un lugar destacado la concesión del Doctorado *Honoris Causa* por la Universidad de Deusto a la profesora Adela Cortina.

Este doctorado se aprueba por Orden del Rector 6/2016, de 17 de febrero, a propuesta de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales (Deusto Business School -DBS-) donde se destaca:

- su relevante contribución al fomento en la sociedad de los valores de la persona integral específicamente vinculados al proyecto universitario deustense.
- su compromiso con la transmisión del saber humano y con la ampliación de las fronteras del conocimiento en la aplicación de la dimensión ética a las ciencias sociales, y en especial, a la actividad económica y empresarial.
- su servicio a la ciencia y a la sociedad a través de su docencia e investigación de calidad en el ámbito de la ética empresarial con el objetivo de sensibilizar y dar las claves para el desarrollo de organizaciones éticas.

## **Adela Cortina doktorearen *laudatio***

Fernando Gómez-Bezares doktorea  
Deusto Business Schooleko  
Finantzetako katedraduna

Deustuko Unibertsitateko errektore goren

Agintari txit argiak

Unibertsitateko elkarteko kideak

Jaun-andreak

Ohore handia da niretzat Adela Cortina irakaslearen *laudatio* egitea, 2016. urte honetan, Deusto Business Schoolen mendeurrena ospatzen ari garenean. Gaur Deusto Business School denak, orain dela ehun urte, 1916an, hasi zuen lehenengo ikasturtea, Deustuko Unibertsitate Komertziala zela, Agirre Bizkaitar Fundazioaren eta Jesusen Lagundiaren babesean. Mendeurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira. Eta horien artean nabarmenetako bat da Adela Cortina irakaslea Deustuko Unibertsitateko *Honoris Causa* doktore izendatzea.

Doktorego hori Errektorearen otsailaren 17ko 6/2016 Aginduan onartu zen, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (DBS-Deusto Business Schoolek) hala eskatuta. Agindu horretan azpimarratzen dira Adela Cortina irakasleak:

- Deustuko unibertsitate egitasmoaren muinean diren balioak gizartean sustatzeko egin duen ekarpen nabaria,
- giza jakintza hedatzeko eta ezagutzaren mugak zabaltzeko duen konpromisoa, gizarte zientziei eta, bereziki, ekonomia eta enpresa jarduerari etika aplikatzeko ahaleginean,
- enpresa etikaren arloko kalitatezko irakaskuntzaren eta ikerketaren bidez zientziari eta gizarteari egin dien zerbitzua, erakunde etikoak garatu daitezen sentiberatuz eta argibideak emanez,
- eta planteamendu filosofiko-humanisten eta ekonomiaren eta erakundeen garapenaren arteko etengabeko elkarrizketari egin dion ekarpen aparta.

- su extraordinaria contribución al dialogo permanente entre los planteamientos filosófico-humanistas y el desarrollo económico y de las organizaciones.

Para algunos puede resultar sorprendente que una escuela de negocios proponga, para celebrar su centenario, a una filósofa especializada en ética como Doctora *Honoris Causa*, pero una breve revisión histórica puede ayudarnos a contextualizarlo.

Tal como afirma Manuel Jesús González (1991, pág. 17) “La economía fue engendrada por investigadores de estricta naturaleza ética... Su camino hacia la independencia es relativamente reciente”. Tenemos antecedentes en Grecia, y después en la Escolástica; mereciendo especial atención la “Escuela de Salamanca”. No podemos olvidar que Adam Smith, antes de escribir “La riqueza de las naciones” -1776-, escribió “La teoría de los sentimientos morales” -1759-, donde formuló un sistema ético coherente con su modelo económico. Y podríamos citar otros autores, a la vez economistas y filósofos morales, como John Stuart Mill. Además, muchos economistas han mostrado especial interés por los más desfavorecidos, lo que está perfectamente alineado con los valores deustenses; así, otra gran figura de la ciencia económica, Alfred Marshall, economista británico que vivió a caballo entre los siglos XIX y XX, confiesa que se decidió a estudiar economía tras visitar durante sus vacaciones los barrios más pobres contemplando los rostros de la gente<sup>1</sup>. De su discípulo y sucesor en la cátedra de Cambridge, Arthur Pigou, se dice que recibía a sus alumnos con estas palabras: bienvenidos los que desean aumentar sus conocimientos de economía porque planean administrar la empresa familiar, bienvenidos también quienes tienen talento matemático y buscan un área donde puedan aplicar su habilidad, pero más bienvenidos sean quienes han caminado por los barrios pobres de Londres, se han sentido conmovidos por la miseria, y vienen en búsqueda de remedios para esos males<sup>2</sup>. Y aunque entre los actuales profesores e investigadores en economía muchas veces parece que esta “vocación” se olvida, tenemos muy buenos ejemplos de grandes economistas preocupados por la pobreza como pueden ser Amartya Sen o Jeffrey Sachs.

Creo que la relación entre economía y ética, tanto históricamente como en nuestro tiempo, es indudable, como también nos muestra Jesús Conill (2004); y tal

Batzuei harrigarria gerta dakieke negozio eskola batek, bere mendeurrena ospatzeko, etikan espezializatutako filosofo bat proposatzea *Honoris Causa* doktore izendatzeko. Hala ere, historiaren azterketa labur batek erabakia dagokion ingurunean kokatzen lagunduko digu.

Manuel Jesús Gonzálezek esaten duen bezala (1991, 17. or.), “Izaera etiko zorrotzeko ikertzaileek sortu zuten Ekonomia. Zientzia independente izateko bidea nahiko berria da.” Aurrekariak lehenengo Grezian aurkituko ditugu eta, ondoren, Eskolastikan. Aipamen berezia merezi du, halaber, Salamancako Eskolak. Ez dezagun ahantzi Adam Smithek, “Nazioen aberastasuna” idatzi aurretik -1776- “Sentimendu moralen teoria” idatzi zuela -1759-, eta bertan formulatu zuela bere eredu ekonomikoarekin bat zetorren sistema etikoa. Ekonomialari eta filosofo moralak ere aipa genitzake, haien artean, John Stuart Mill. Gainera, ekonomialari askok ardura berezia erakutsi izan dute gizarte egoera ahulenean daudenengatik eta horrek, zalantzarik gabe, bat egiten du Deustuko balioekin. Ildo horretatik, ekonomia zientziaren beste egile nagusietako batek, XIX. eta XX. mendeetako Alfred Marshall ekonomialari britainiarrak, aitortu zuen ekonomia ikastea erabaki zuela udan auzorik pobreenak bisitatu eta hango jendearen aurpegiak ikusi ondoren<sup>1</sup>. Arthur Pigou Marshallen dizipulu eta Cambridgeko katedran haren ondorengo izan zenari buruz esan ohi da ikasleei harrera egiten zienean hitz hauek esaten zizkiela: ongi etorriak beren ekonomiako jakiteak zabaldu nahi dituztenak familiako enpresa kudeatzeko asmoa dutelako, ongi etorriak matematikarako talentua dutenak eta beren trebetasuna aplikatzeko arlo bat bilatzen dutenak, baina, ongi etorriak, bereziki, Londresko auzorik pobreenetan barrena ibili ondoren, miseriak hunkituta, egoera latz horietarako irtenbide bila datozenak<sup>2</sup>. Eta gaur eguneko ekonomiako irakasle eta ikertzaile askori “bokazio” hori ahaztu egin zaiela dirudien arren, pobreziaz kezkatu diren ekonomialari handien adibide oso onak ditugu, horien artean, Amartya Sen edo Jeffrey Sachs.

Nire ustez, inolaz ere ezin da zalantzan jarri ekonomiaren eta etikaren arteko lotura, ez historian zehar eta ez orain ere, Jesus Conillek ere (2004) adierazten digun bezala. Eta, beharbada, gaur, enpresa munduan, Jasangarritasunaren edo Enpresen Gizarte Erantzukizunaren kontzeptuak ditugu lotura horren adierazpen garbienak.

<sup>1</sup> Rodríguez Braun (1997, pág. 333).

<sup>2</sup> Frenkel (1997).

<sup>1</sup> Rodríguez Braun (1997, 333. or.).

<sup>2</sup> Frenkel (1997).

vez su expresión más actual en el mundo empresarial son los conceptos de Sostenibilidad o de Responsabilidad Social Corporativa.

Aclarado, confío en que con éxito, lo anterior, algunos de los asistentes tal vez se pregunten “¿qué pinta un profesor de finanzas haciendo la *Laudatio* a una ilustre filósofa?, si los de la DBS querían reconocer en su centenario el trabajo en favor de la ética empresarial de la doctora Cortina, ¿no hubiera sido mejor buscar un filósofo en otra facultad para hacer este encomio?” Y tal vez tengan razón, pero nuestro Decano, el doctor Guillermo Dorronsoro, me pidió que la hiciera, seguramente recordando mis trabajos sobre ética y finanzas, en los que he citado repetidamente a la profesora Cortina, y yo, con una osadía impropia de mi edad, acepté con ilusión el encargo.

Adela Cortina posee un impresionante currículum, de manera muy resumida: se doctoró en Filosofía en 1976 en la Universidad de Valencia, con premio extraordinario. Desde 1987 es Catedrática de Ética y Filosofía Política en la Universidad de Valencia, y desde 2008 miembro de número de la Real Academia de Ciencias Morales y Políticas, siendo la primera mujer que ingresa en esta academia desde su fundación en 1857. Ha obtenido las más importantes becas alemanas<sup>3</sup>. lo que le permitió ampliar su formación en Múnich y Fráncfort, y trabajar con Apel y Habermas, creadores de la ética del discurso, que ella introdujo en el mundo español e iberoamericano.

Ha tenido una muy rica actividad académica en grado y postgrado, así como en investigación. Ha recibido importantes distinciones universitarias, además de varios premios, como el Premio Internacional de Ensayo “Jovellanos” 2007 y el Premio Nacional de Ensayo 2014.

La profesora Cortina es una activa congresista en España y en el extranjero, es autora de más de veinte libros, algunos de gran difusión, superando los doscientos cincuenta artículos publicados. Por recordar algunos de sus libros, podemos citar: *Razón comunicativa y responsabilidad solidaria* en 1985, *Ética mínima* en 1986, *Ética aplicada y democracia radical* en 1993, *La ética de la sociedad civil* en 1994, *Ética de la empresa* en 1994, *Alianza y contrato* en 2001, *Ética de la razón cordial* en 2007, *Pobreza y libertad* en 2009 o *Justicia cordial* en 2010.

Un estudioso de la obra de la doctora Cortina, Javier Sánchez Pachón<sup>4</sup>, denomina “Escuela de Valencia” a

Aurrekoa argitu ondoren, egoki espero dut, hemen zaudetenetako batzuek beharbada zeuen buruari hauxe galdetuko diozue: “zer egiten du finantzetako irakasle batek filosofo ospetsu baten *Laudatio* egiten? DBSkoek beren mendeurrenean Cortina doktoreak enpresa etikaren alde egin duen lana aitortu nahi bazuten, ez al zen egokiagoa izango beste fakultateren bateko filosoforen bat bilatzea, *Laudatio* egiteko?” Eta baliteke arrazoi izatea. Baina gure dekanoak, Guillermo Dorronsoro jaunak, *Laudatio* egitea eskatu zidan, ziur asko etikari eta finantzei buruz egin ditudan lanak ezagututa, horietan behin eta berriz aipatu izan baitut Cortina irakaslea. Eta nik, adinari ez dagokion ausardiaz, ilusioz hartu nuen eskatutakoa.

Adela Cortinaren curriculuma bikaina da. Oso labur aipatuko dut: Filosofiako doktoregoa eskuratu zuen 1976an Valentziako Unibertsitatean, aparteko sariarekin. 1987az geroztik, Etikako eta Filosofía Politikoko katedradunada Valentziako Unibertsitatean, eta 2008az geroztik, Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako kidea da. Hain zuzen ere, Akademia 1857an sortu zenez geroztik, lehenengo kide emakumezkoa da. Alemaniako beka garrantzitsuenak eskuratu zituen<sup>3</sup>. eta horrek aukera eman zion Munichen eta Frankfurten prestakuntza zabaltzeko eta Apel eta Habermas diskurtsoaren etikaren sortzaileekin lan egiteko. Horrela, Espainiako eta Hego Amerikako mundura ekarri zuen planteamendu hori.

Graduan eta graduondokoetan jarduera akademiko oparoa izan du, baita ikerkuntzan ere. Unibertsitateko aipamen garrantzitsu asko jaso ditu, baita sari batzuk ere, horien artean “Jovellanos” Nazioarteko Saiakera saria, 2007an, eta Espainiako Saiakera Saria, 2014an.

Cortina irakasleak Espainiako eta atzerriko biltzar askotan hartzen du parte. Hogei liburu baino gehiago idatzi ditu, horietako batzuk zabalkunde handikoak, eta berrehun eta berrogeita hamar artikulua baino gehiago argitaratu. Bere liburuetako batzuk gogoratuko ditugu jarraian: *Razón comunicativa y responsabilidad solidaria*, 1985ekoa; *Ética mínima*, 1986koa; *Ética aplicada y democracia radical*, 1993koa; *La ética de la sociedad civil*, 1994koa; *Ética de la empresa*, 1994koa; *Alianza y contrato*, 2001ekoa; *Ética de la razón cordial*, 2007koa; *Pobreza y libertad*, 2009koa; edo *Justicia cordial*, 2010ekoa.

Javier Sánchez Pachón<sup>4</sup> sakon aztertu du Cortina doktorearen lana, eta “Valentziako Eskola” izena

<sup>3</sup> Deutscher Akademischer Austauschdienst y Alexander von Humboldt-Stiftung.

<sup>4</sup> Sánchez Pachón (2014 a y b).

<sup>3</sup> Deutscher Akademischer Austauschdienst eta Alexander von Humboldt-Stiftung.

<sup>4</sup> Sánchez Pachón (2014 a eta b).

un movimiento intelectual formado por un equipo de investigadores, liderados por Adela Cortina, vinculados a la filosofía moral que, utilizando la raíz ética kantiana y la hermenéutica crítica como herramienta, traslada la ética a los ámbitos de aplicación que la sociedad reclama. Este experto sitúa como personas representativas de este equipo, junto a la profesora Cortina, a Jesús Conill, Agustín Domingo Moratalla, Juan Carlos Siurana, José Félix Lozano, Domingo García-Marzá y Elsa González.

No cabe duda de que la valoración ética de las diferentes conductas humanas es una tarea de enorme interés<sup>5</sup>. La persona busca su propia excelencia, y la ética es una reflexión para buscar esa excelencia<sup>6</sup>. Sin embargo, para algunos es imposible, hoy en día, emitir juicios éticos de carácter general, pues lo que para unos es éticamente correcto para otros no lo es; parece que carecemos de un modelo suficientemente aceptado de persona excelente y, en consecuencia, tenemos grandes dificultades para consensuar las normas éticas, es la conocida tesis de Alasdair MacIntyre (1987). Sin duda, la fundamentación religiosa de la ética ayuda a resolver estos problemas, pero el ser humano puede aceptar o rechazar un fundamento trascendente y, en consecuencia, se está haciendo un importante esfuerzo para construir una ética aceptable en una sociedad pluralista.

Como muy bien dice la profesora Adela Cortina (1994a, pág. 49 y ss.) el pluralismo precisa que se compartan unos mínimos morales sobre los que construir una sociedad más justa (como por ejemplo el respeto a los derechos humanos): esos mínimos dan lugar a la que la profesora Cortina denomina “ética de la sociedad civil”. En base a esos mínimos podemos trabajar juntos para avanzar hacia una sociedad más justa. Y partiendo de esos mínimos, cada uno habrá de perseguir su propio ideal de felicidad, lo que representará su máximo ético; tal es el caso de las religiones, que proponen un proyecto de excelencia para el ser humano. De los mínimos se deducirán normas exigibles para todos (la justicia se exige), el ideal de felicidad podrá ser aconsejado, pero cada uno puede elegir el suyo. Esta distinción puede ser fructífera, aunque también criticable<sup>7</sup>; sin embargo, es un intento serio para dotar de normas éticas a una sociedad pluralista.

En nuestras democracias occidentales existen una serie de valores, derechos y actitudes que, compartidos

ematen dio Adela Cortina buru duen ikertzaile talde batek osatzen duen mugimendu intelektualari: filosofia moralari lotuta, Kanten etikaren sustraiak eta hermeneutika kritikoa tresnatzat hartuz, gizarteak eskatzen dituen aplikazio eremuetara eramaten du etika. Aditu horrek talde horretako pertsona adierazgarrienen artean hauek aipatzen ditu, Cortina irakaslearekin batera: Jesus Conill, Agustin Domingo Moratalla, Juan Carlos Siurana, José Félix Lozano, Domingo García-Marzá eta Elsa González.

Zalantzarik gabe, gizakion portaeraren balioespen etikoa interes handiko zeregina da<sup>5</sup>. Pertsonak bikaintasuna bilatzen du, eta etika bikaintasun hori bilatzeko gogoeta da<sup>6</sup>.

Batzuentzat, ordea, gaur egun ezinezkoa da izaera orokorreko epai etikoak ematea, batzuentzat etikaren ikuspuntutik zuzena dena besteentzat ez baita horrela. Badirudi ez dugula pertsona bikainaren onarpen zabaleko eredurik eta, horrenbestez, zailtasun handiak ditugula arau etikoak adosteko. Horixe da, hain zuzen ere, Alasdair MacIntyren tesia (1987) Zalantzarik gabe, etikaren oinarri erlijiosoek arazo horiek gainditzen laguntzen digute. Baina gizakiak oinarri transzendente bat onartzea edo baztertzea erabaki dezake. Horregatik, ahalegin garrantzitsua egiten ari gara askotariko gizarte honetan denok onartzeko moduko etika bat eraikitzeko.

Adela Cortina irakasleak ongi baino hobeto esaten duen bezala (1994a, 49. orria eta hurrengoak), aniztasunak minimo moral batzuk partekatu beharra dakar, haien gainean gizarte zuzenagoa eraikitzeko (giza eskubideak errespetatzea da, besteak beste, gutxieneko horietako bat): minimo horiek ekarriko dute Cortina irakasleak “gizarte zibilaren etika” deitzen duena. Minimo horiek oinarri hartuta, elkarrekin lan egin ahal izango dugu gizarte zuzenagoa lortzeko bidean. Eta minimo horiek abiapuntu hartuta, bakoitzak ahalegindu beharko du zorientasunaren bere ideala lortzen, horixe izango da bere maximo etikoa. Hala egiten dute erlijioek, gizakiontzat bikaintasun proiektu bat proposatzen baitute. Minimo horien ondorio izango dira denoi eskatuko zaizkigun arauak (justizia, esate baterako, denoi eskatzen zaigu); zorientasunaren ideala, ordea, gomendatu daiteke, baina bakoitzak aukeratuko du berea. Bereizketa hori emankorra izan daiteke, baita kritikagarria ere<sup>7</sup>; hala eta guztiz ere, askotariko gizarte bat arau etikoz hornitzeko ahalegin serioa da, zalantzarik gabe.

Mendebaldeko gure demokrazietan, balio, eskubide eta jarrera jakin batzuk gehienok partekatzen ditugu eta

<sup>5</sup> Seguiré aquí mis trabajos (Gómez-Bezares, 1991 y 2000), el segundo, claramente inspirado en la filosofía de Adela Cortina.

<sup>6</sup> Camps (1990).

<sup>7</sup> Pueden verse algunas limitaciones en Carrera i Carrera (2003), o podría llevar a una ética minimalista como la de Engelhardt (1995).

<sup>5</sup> Nire lanei jarraituko diet hemen (Gómez-Bezares, 1991 eta 2000). Bigarrena Adela Cortinaren filosofian oinarrituta dago, argi eta garbi.

<sup>6</sup> Camps (1990).

<sup>7</sup> Hainbat muga ikus daitezke Carrera i Carrera (2003) lanean. Etika minimalistara ere eraman gaitzake, Engelhardt-enera (1995) adibidez.



por una gran mayoría, son la base de nuestra ética cívica. Valores como la libertad, la igualdad y la solidaridad<sup>8</sup>, que se concretan, respectivamente, en las tres generaciones de derechos humanos: derechos políticos y civiles (primera generación), derechos económicos, sociales y culturales (segunda generación) y derechos ecológicos y derecho a la paz (tercera generación); cuyo cumplimiento y respeto exige una actitud dialógica. Sobre esto hemos de profundizar para encontrar una ética aceptable para todos.

Aplicándolo a la economía, yo creo que existen unos mínimos compartidos en nuestra sociedad como defender la libertad económica, y conseguir que el sistema nos lleve al bienestar individual y colectivo dentro de una razonable igualdad, y esto tratamos de conseguirlo con un sistema de economía de mercado, regulado por las autoridades económicas, y con la protección del Estado del Bienestar.

En base a lo anterior la ética puede ser prescriptiva, en la economía y en otros quehaceres humanos, teniendo en cuenta, en base al diálogo, los diferentes intereses implicados; y a eso se ha dedicado también la profesora Cortina y su equipo de investigación, colaborando con los demás saberes de forma interdisciplinar. Han considerado que es importante aplicar la ética a los problemas de la vida cotidiana, dialogando expertos e implicados, para pasar de la moral pensada a la moral vivida, en palabras de Aranguren. Además, Adela Cortina se ha prodigado en los medios de comunicación, explicando las cosas muy claras y acercándose a un público mucho más amplio.

Llegados a este punto merece destacarse la Fundación ÉTNOR (“para la Ética de los Negocios y las Organizaciones”), que “desde la perspectiva de la ética cívica, tiene como misión la promoción, formación e investigación sobre los valores éticos que rigen y deben orientar la actividad de las organizaciones, tanto empresariales como solidarias, y tanto públicas como privadas”<sup>9</sup>. La profesora Cortina es la directora de esta Fundación, nacida en 1994, y que ha conseguido reconocimiento nacional e internacional, donde llevan casi veinticinco años trabajando de forma interdisciplinar. De la misma manera que se ha implicado en otras importantes instituciones de la sociedad civil y política<sup>10</sup>. Para la doctora Cortina ha sido muy importante aplicar la ética filosófica en distintos ámbitos de la vida social,

hietan oinarrizten da gure gizarte etika. Balio horietako batzuk dira, esate baterako, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna<sup>8</sup>, eta hiru horiek, hurrenez hurren, giza eskubideen hiru belaunaldietan zehazten dira: eskubide politikoak eta zibilak (lehenengo belaunaldia), eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak (bigarren belaunaldia) eta eskubide ekologikoak eta bakerako eskubidea (hirugarren belaunaldia). Eskubide horiek bete eta errespetatuko badira, behar-beharrezkoa da elkarrizketarako jarrera. Horren inguruan sakondu beharko dugu denok onartzeko moduko etika bat aurkitzeko.

Ekonomiaren esparrura ekarrita, nire ustez, gure gizartean minimo edo gutxieneko batzuk partekatzen ditugu, esaterako, gehienok defendatzen dugu askatasun ekonomikoa eta gehienok nahi dugu sistemak gizabanakoaren eta gizartearen ongizatera eraman gaitzan, arrazoizko berdintasun baten barruan. Eta hori lortzeko, merkatu ekonomiako sistema erabiltzen dugu, agintari ekonomikoek araututa, eta Ongizate Estatuak babestuta.

Aurrekoa oinarri hartuta, etika agindu emailea izan daiteke, bai ekonomian eta bai gizakion bestelako jardura guztietan, elkarrizketaren bidez tartean diren interes desberdinak aintzat hartuz gero. Eta esparru horretan aritu dira Cortina irakaslea eta bere ikertaldea, gainerako jakite eremuekin batera lan egiten, diziplinarteko moduan. Uste dute garrantzitsua dela etika eguneroko bizitzako arazoetara eramatea, adituak eta inplikatuak elkarrizketan jarriz, pentsatutako moraletik bizi izandako moralera igarotzeko, Arangurennek esaten zuen bezala. Gainera, Adela Cortina sarritan azaldu da hedabideetan, gauzak oso argi azalduz, eta publiko zabalagoarengana iritsi da horrela.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da ÉTNOR Fundazioa (Negozioen eta Erakundearen Etikarako Fundazioa). “Fundazio horren eginkizuna da edozein erakunde motaren –erakunde pribatuak eta publikoak, enpresa erakundeak edo elkartasunezkoak– jardura gidatzen duten eta gidatu behar duten balio etikoak sustatzea eta balio horien inguruko prestakuntza eta ikerketa bultzatzea, gizarte etikaren ikuspegitik”<sup>9</sup>. Fundazioa 1994an sortu zen eta ia hogeita bost urte hauetan, estatuan eta nazioartean aitortzea jaso du, diziplinartean lan eginez. Eta Cortina irakaslea da Fundazioaren zuzendaria. Gizarteko eta politikako beste erakunde garrantzitsu batzuetan ere hartzen du parte Cortina irakasleak<sup>10</sup>. Hain zuzen ere, Cortina doktorearentzat

<sup>8</sup> Libertad, igualdad y fraternidad según la Declaración de los Derechos del Hombre y del Ciudadano de la Revolución Francesa de 1789.

<sup>9</sup> Martínez (2016, pág. 14). Puede verse también <http://www.etnor.org/>

<sup>10</sup> Como miembro del comité designado por el Consejo General del Poder Judicial para elaborar el Código de Ética de la Función Judicial, del Board de la International Development Ethics Association y de la Human Development and Capability Association. Ha sido también miembro del Panel de Expertos del Programa ACADEMIA de ANECA. En reiteradas ocasiones ha formado parte del Jurado de los Premios Príncipe de Asturias de “Comunicación y Humanidades” y de “Ciencias Sociales”, etc.

<sup>8</sup> Askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna, 1789ko Frantziako Iraultzako Gizakien eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren arabera.

<sup>9</sup> Martínez (2016, 14. or.). Ikusi, halaber, <http://www.etnor.org/>

<sup>10</sup> Funtzio Judizialaren Kode Etikoa prestatzeko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatutako batzordeko kidea da, International Development Ethics Association elkarteko zuzendaritzako kidea, Human Development and Capability Association elkarteko kidea. ANECAko ACADEMIA Programako Adituen Taldeko kidea ere izan da. Sarritan hartu du parte Asturiasko Printze sarien epaimahaietan, “Komunikazioa eta Giza Zientziak” eta “Gizarte Zientziak” arloetan, etab.

como es el caso de la política, la democracia, la justicia global, el desarrollo humano, la economía y la empresa, la bioética, los medios de comunicación o la educación.

En la filosofía de Adela Cortina la raíz es kantiana, y reconoce su vinculación con los filósofos españoles (Ortega, Zubiri<sup>11</sup>. Aranguren) y alemanes (Apel, Habermas), que ponen en diálogo la propuesta de Kant<sup>12</sup>. Para nuestra nueva doctora el ser humano puede darse normas morales desde la racionalidad, el diálogo y la cordialidad, así logra fundamentar una ética mínima para luego aplicarla en la sociedad civil<sup>13</sup>. Esa ética se basa en la justicia y en la compasión, desde lo que llama razón cordial<sup>14</sup>. La cordialidad introduce las razones del corazón, los sentimientos, sin ellos es difícil que nos obliguemos a obrar moralmente. Esta combinación de razón y emoción me recuerda un debate similar que tenemos en finanzas, con las finanzas conductuales (*behavioral finance*).

Como dice Adela Cortina, desde la publicación de Razón comunicativa y responsabilidad solidaria (1985), pero sobre todo desde Ética mínima (1986), ha ido construyendo una ética cívica, con una potente fundamentación filosófica, una versión “cordial” de la ética del discurso. Esta ética cívica, con éticas de máximos de vida buena desde una ética mínima compartida por ellos, permite a los miembros de las sociedades pluralistas construir su vida juntos, desde el capital ético compartido.

Los dos retos a los que ha querido responder Adela Cortina aparecen en el prefacio a la sexta edición de Ética mínima: “Cómo es posible diseñar ofertas de filosofía moral, política y de la religión que permitan conciliar las insobornables exigencias de universalismo ético con la rica pluralidad de las éticas de máximos; cómo es posible pensar y vivir adecuadamente exigencias universales de justicia e invitaciones a la felicidad, proyectos de sentido para la vida y la muerte, enraizados en culturas, tradiciones e historias diversas”. Y más adelante añade: “...gran acontecimiento de estos últimos tiempos es el fortalecimiento de las *éticas aplicadas* y su arrolladora implantación en la vida social y filosófica. Sectores profesionales, como médicos y enfermeras, empresarios, periodistas...” trabajan con “eticistas” en la elaboración de éticas profesionales. Termina el prefacio diciendo: “Forjar una ciudad universal -un reino de Dios, de los Fines, de los hombres-, en la que

oso garrantzitsua izan da etika filosofikoa gizarte bizitzako askotariko esparruetara eramatea, besteak beste, politikara, demokraziara, justizia globalera, giza garapenera, ekonomia eta enpresara, bioetikara, hedabideetara edo hezkuntzara.

Adela Cortinaren filosofiaren sustraiak kantiarrak dira, eta Ortega, Zubiri<sup>11</sup> eta Aranguren filosofo espainiarrekin eta Apel eta Habermas alemaniarrekin lotura duela aitortzen du, Kanten proposamena elkarrizketara eramaten baitute<sup>12</sup>.

Gure doktore berriaren aburuz, gizakiak arau moralak jar diezazkioke bere buruari, arrazionaltasunean, elkarrizketan eta adetasunean oinarrituta eta, horrela, gutxieneko etika oinarritu ahal izango du, gero gizarte zibilean aplikatzeko<sup>13</sup>. Gutxieneko etika hori justizian eta errukian oinarritzen da, berak arrazoi adeitsu deitzen duen horretan, hain zuzen ere<sup>14</sup>. Adetasunak bihotzaren arazoak, sentimenduak ekartzen dizkigu, horiek gabe oso zaila da geure burua moralaren ikuspegitik zuzen jokatzera behartzea. Arrazoiaren eta emozioaren arteko konbinazio horrek finantzetan dugun eztabaida bat ekartzen dit gogora, jokabide finantzen ingurukoa (*behavioral finance*).

Adela Cortinak aitortu izan duen bezala, *Razón comunicativa y responsabilidad solidaria* (1985) argitaratu zuenetik eta, batez ere, *Ética mínima* (1986) argitaratu zuenetik, gizarte etika bat eraikitzen joan da, oinarri filosofiko indartsua duena, diskurtsoaren etikaren bertsio “adeitsua”, nolabait. Gizarte etika horrek, partekatutako gutxieneko etika oinarri hartuta, baina bizitza onari buruzko maximoen etika baztertu gabe, aukera ematen die askotariko gizarteetako kideei beren bizitza elkarrekin eraikitzeko, kapital etiko partekatuaren gainean.

Adela Cortinak, hortaz, bi erronkari erantzun nahi izan die eta biak azaltzen dira *Ética mínima* lanaren seigarren edizioaren hitzaurrean: “Nola diseina litezke filosofía moral, politiko eta erlijiosoko eskaintzak, unibertsalismo etikoaren eskakizun bazterezinak eta maximoen etiken aniztasun oparoa uztartuz; nola pentsa eta bizi litezke egoki justiziako eskakizun unibertsalak eta zorientasunerako gonbitak, hots, bizitzari eta heriotzari zentzua ematen dioten proiektuak, askotariko kultura, tradizio eta historietan sustraituak”. Eta, aurrerago, honela dio: “... aspaldi honetako gertaera handia dugu *etika aplikatuak* sendotzea eta gizarte eta filosofía bizitzan indar handiz ezartzea. Sektore profesionalak, besteak beste, sendagileak eta erizainak, enpresaburuak, kazetariak... “eticistekin” lanean ari dira lanbideko etikak prestatzeko”. Hauek dira

<sup>11</sup> También Doctor *Honoris Causa* por la Universidad de Deusto en 1980.

<sup>12</sup> Cortina (2016, pág. 24).

<sup>13</sup> Sánchez Pachón (2014b, pág. 91).

<sup>14</sup> Cortina (2016, pág. 33).

<sup>11</sup> *Honoris Causa* doktorea Deustuko Unibertsitatean, 1980an.

<sup>12</sup> Cortina (2016, 24. or.).

<sup>13</sup> Sánchez Pachón (2014b, 91. or.).

<sup>14</sup> Cortina (2016, 33. or.).



todos los seres humanos se sientan y sepan ciudadanos, sigue siendo urgente veinte siglos después del nacimiento de Cristo”.

Una característica que ya he comentado de la profesora Cortina es que ha cultivado los medios de comunicación. En mi investigación para preparar esta *Laudatio*, he tenido ocasión de releer algunos de sus artículos y entrevistas en la prensa, y lo que más me ha gustado es su claridad, su desenfado, su optimismo, su sentido común, y esa unión de fuertes convicciones y tolerancia. Leer o escuchar a Adela es un regalo. Qué bien explica en El País por qué hay que respetar a los animales, pero que los derechos humanos son prioritarios<sup>15</sup>, qué interesantes sus ideas en la entrevista que le hacen en este periódico en 2015<sup>16</sup>, donde dice, por ejemplo: “La responsabilidad social debería ser un instrumento de gestión, una medida de prudencia y una exigencia de justicia”. También merece resaltarse su denuncia de la aporofobia<sup>17</sup>, o la deliciosa entrevista de 2008 en Vida Nueva<sup>18</sup>; *ça doit avoir un lendemain* (esto debe tener un mañana, dice en la emocionante cita de Max Horkheimer en su Teoría Crítica a Víctor Hugo<sup>19</sup>), o también, como cristiana, nos recuerda que las prioridades del Evangelio son el amor, los pobres y los vulnerables. Y estos son solo algunos ejemplos.

Pero *tempus fugit*, y estoy superando el tiempo que me ha concedido nuestro Secretario General para esta *Laudatio*, y, tal vez, la paciencia de muchos de ustedes, así que voy terminando.

Pienso que los estudiosos y divulgadores de la ética nos deben ayudar a lograr un mundo donde los seres humanos nos comportemos mejor con nosotros mismos, con nuestros contemporáneos, con las generaciones futuras, con el mundo que nos rodea..., actuando con justicia y con compasión, sobre todo con los más desfavorecidos. Adela Cortina ha aportado mucho en esa dirección.

Por todo ello, solicito con toda consideración a las dignísimas autoridades y al claustro de la Universidad otorguen y confieran a la profesora Dña. Adela Cortina Orts el supremo grado de Doctora *Honoris Causa* por la Universidad de Deusto.

Muchas gracias.

<sup>15</sup> Cortina (2010).

<sup>16</sup> Cortina (2015).

<sup>17</sup> Neologismo atribuido a Adela Cortina por Fundéu, consultado el 24/07/2016 en: <http://www.fundeu.es/recomendacion/aporofobia/>

<sup>18</sup> Cortina (2008).

<sup>19</sup> “Si tuviera que explicar por qué Kant perseveró en la creencia en Dios, no encontraría mejor referencia que un pasaje de Víctor Hugo. Lo citaré tal como me ha quedado grabado en la memoria: una mujer anciana cruza una calle, ha educado hijos y cosechado ingratitud, ha trabajado y vive en la miseria, ha amado y se ha quedado sola. Pero su corazón está lejos del odio y presta ayuda cuando puede hacerlo. Alguien la ve seguir su camino y exclama: ‘ça doit avoir un lendemain’, ‘esto debe tener un mañana’. Porque no eran capaces de pensar que la injusticia que domina la historia fuese definitiva, Voltaire y Kant exigieron un Dios, y no para sí mismos”.

hitzaurrearen azken hitzak: "Oraindik ere, Kristo jaio zenetik hogeie mende igarota, premiazkoa da herri unibertsal bat erakitzea –Jainkoaren erreinu bat, Helburuen erreinua, gizakien erreinua–, gizaki guztiak herritar sentituko diren herri bat, herritar direla jakingo duten herri bat”.

Cortina irakaslearen ezaugarrietako bat, dagoeneko aipatu dut, hedabideetan duen presentzia da. *Laudatio* hau prestatzeko lanetan ari nintzela, prentsako bere artikulua eta elkarrizketetako batzuk berriro irakurtzeko aukera izan dut. Eta gehien-gehien haren argitasuna gustatu zait, haren naturaltasuna, baikortasuna, zentzua, eta uste sendoen eta tolerantziaren batura hori. Adela idatzitakoa irakurtzea edo Adelari entzutea opari bat da. Zein ongi azaltzen duen El País egunkarian zergatik errespetatu behar diren animaliak, baina giza eskubideak lehentasunezkoak direla ahortzi gabe<sup>15</sup>, edo zein interesgarriak diren egunkari horretan 2015ean egin zioten elkarrizketa batean azaltzen dituen ideiak<sup>16</sup>, esate baterako, hauexek: “Gizarte erantzukizuna kudeatzeko tresna bat, zuhurtasunaren neurri bat eta justiziaren eskakizun bat izan beharko litzateke”. Azpimarratzekoa da aporofobia<sup>17</sup> nola salatzen duen edo 2008an Vida Nuevaan egin zioten elkarrizketa zoragarria<sup>18</sup>: *ça doit avoir un lendemain* (honek bihar bat eduki behar du, dio Max Horkheimerren aipu zirrargarrian, *Teoría Crítica a Víctor Hugo* lanean<sup>19</sup>). Gainera, kristau izanik, gogoratzen du Ebanjelioaren lehentasunak maitasuna, pobeak eta ahulena direla. Eta adibide batzuk besterik ez dira horiek.

Baina *tempus fugit* eta gure idazkari nagusiak *Laudatio* honetarako eman didan denbora agortu dut jada, eta, beharbada, baita zuetako askoren pazientzia ere. Beraz, bukatuko dut.

Nire ustez, etikaren alorreko adituek eta dibulgatzaileek gizakioi lagundu behar digute mundu hobea lortzen, guztiok portaera zuzenagoa izan dezagun geure buruarekin, geure garaikideekin, etorkizuneko belaunaldiekin, inguratzen gaituen munduarekin..., justiziaz eta errukiz jokatzeko, batez ere ahulenekin. Eta Adela Cortinak ekarpen handia egin du norabide horretan.

Horregatik guztiagatik, Unibertsitateko agintari gorenei eta klaustroari eskatzen diot, apaltasun osoz, Adela Cortina Orts andreari Deustuko Unibertsitateko *Honoris Causa* doktore gradu gorena emateko.

Mila esker.

<sup>15</sup> Cortina (2010).

<sup>16</sup> Cortina (2015).

<sup>17</sup> Fundéu Adela Cortinari egozten dion neologismoa, 2016/97/24an kontsultatua helbide honetan: <http://www.fundeu.es/recomendacion/aporofobia/>

<sup>18</sup> Cortina (2008).

<sup>19</sup> “Azaldu behar izango banu Kantek zergatik jarraitzen zuen Jainkoarengan sinesten, Victor Hugoren pasarte bat baino erreferentzia hobierik ez nuke aurkituko. Gogoan gordeta gelditu zaidan bezala aipatuko dut: adineko emakume batek kale bat gurutzatu du, seme-alabak hezi ditu eta esker txarra besterik ez du jaso, hainbat urtez lanean aritu da eta miserian bizi da, maitatu izan du eta bakarrik gelditu da. Baina bihotzean ez du gorrotorik eta laguntza eskaintzen du ahal duen guztietan. Norbaitek bideari irmo jarraitzen diola ikusten du eta hauxe dio: ‘ça doit avoir un lendemain’, ‘honek bihar bat eduki behar du’. Ezin zuten sinetsi historian nagusi den bidegabekeria behin betikoa izango zenik. Horregatik, Voltairek eta Kantek Jainko bat eskatzen zuten, eta ez beren buruarentzat”.

## BIBLIOGRAFÍA

- CAMPS, V. (1990): *Virtudes públicas*, Espasa Calpe, Madrid.
- CARRERA i CARRERA, J. (2003): “Mundo global. Ética global”, *Cuadernos de Cristianisme i Justicia*, nº 118.
- CONILL, J. (2004): *Horizontes de economía ética. Aristóteles, Adam Smith, Amartya Sen*, Tecnos, Madrid.
- CORTINA, A. (1986): *Ética mínima*, Tecnos, Madrid.
- CORTINA, A. (1994a): *La ética de la sociedad civil*, Anaya, Madrid.
- CORTINA, A. (1994b): *Ética de la empresa*, Trotta, Madrid.
- CORTINA, A. (2008): “Estamos en una sociedad plural en la que se tienen que oír las voces de todos”, *Vida nueva*, 13/02/2008, consultado el 24/07/2016 en: <http://www.vidanueva.es/2008/02/13/adela-cortina-%E2%80%9Cestamos-en-una-sociedad-plural-en-la-que-se-tienen-que-oir-las-voces-de-todos%E2%80%9D/>
- CORTINA, A. (2010): “¿Tienen derechos los animales?”, *El país*, 29/07/2010, consultado el 24/07/2016 en: [http://elpais.com/diario/2010/07/29/opinion/1280354405\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2010/07/29/opinion/1280354405_850215.html)
- CORTINA, A. (2015): “Dividimos todo entre carcas y progres; es imposible el diálogo”, *El país*, 28/01/2015, consultado el 24/07/2016 en: [http://cultura.elpais.com/cultura/2015/01/28/actualidad/1422473990\\_559561.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2015/01/28/actualidad/1422473990_559561.html)
- CORTINA, A. (2016): *Ética para una universidad cosmopolita*, (palabras pronunciadas con motivo de su investidura como Doctora Honoris Causa), Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones, Murcia, consultado el 23/07/2016 en: <http://www.um.es/web/universidad/doctores-honoris-causa/adela-cortina>
- ENGELHARDT, H.T. (1995): *Los Fundamentos de la Bioética*, Paidós, Barcelona.
- FRENKEL, R. (1997): “Doctrinas económicas: cambia, todo cambia”, *Clarín*, (Buenos Aires), 15 de agosto, pág. 17.
- GÓMEZ-BEZARES, F. (1991): “Ética y objetivo financiero”, *Boletín de estudios económicos*, diciembre, págs. 435-463.

## BIBLIOGRAFIA

- CAMPS, V. (1990): *Virtudes públicas*, Espasa Calpe, Madrid.
- CARRERA i CARRERA, J. (2003): “Mundo global. Ética global”, *Cuadernos de Cristianisme i Justicia*, 118. zk.
- CONILL, J. (2004): *Horizontes de economía ética. Aristóteles, Adam Smith, Amartya Sen*, Tecnos, Madrid.
- CORTINA, A. (1986): *Ética mínima*, Tecnos, Madrid.
- CORTINA, A. (1994a): *La ética de la sociedad civil*, Anaya, Madrid.
- CORTINA, A. (1994b): *Ética de la empresa*, Trotta, Madrid.
- CORTINA, A. (2008): “Estamos en una sociedad plural en la que se tienen que oír las voces de todos”, *Vida nueva*, 2008/02/13, 2016/07/24an kontsultatua helbide honetan: <http://www.vidanueva.es/2008/02/13/adela-cortina-%E2%80%9Cestamos-en-una-sociedad-plural-en-la-que-se-tienen-que-oir-las-voces-de-todos%E2%80%9D/>
- CORTINA, A. (2010): “¿Tienen derechos los animales?”, *El país*, 2010/07/29, 2016/07/24an kontsultatua helbide honetan: [http://elpais.com/diario/2010/07/29/opinion/1280354405\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2010/07/29/opinion/1280354405_850215.html)
